



LITERAKTUM

LITER

2024

A

Azaroa / Noviembre

11-24

A

Hitzen
hiria

La ciudad de
las palabras

A

TU

M



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

www.literaktum.eus

PROGRAMA OROKORRA / PROGRAMA GENERAL
6 - 27

JARDUERA BEREZIAK / ACTIVIDADES ESPECIALES
28 - 41

ERAKUSKETAK / EXPOSICIONES
42 - 49

LITERAKTUM TXIKIA
50 - 61

LITERAKTUM 24

Letrak zeruertzean Un horizonte de letras

Literatura beste hainbat diziplinekin elkarriketan eta gaur egungo eztabaidei lotuta. Literatura festa partekatua eta edonori irekia. Literatura irakurleen eta idazleen arteko topagune gisa. Horiek dira Donostiako literatura jaialdiaren nortasun ezaugarriak.

Letrak zeruertzean izenburupean dator aurtengo Literaktumen programazio zabala, gatazka sozial, politiko eta gerren eta horien ondorioen arteko harremanak aztertzeko. Egoera bidegabeetatik eratorritako indarkeria eta gatazkek behartutako migrazioen ondoriozko nortasun eza izango dira hausnarketarako gai.

La literatura en diálogo con otras disciplinas y en conexión con los debates de su tiempo. La literatura como una fiesta compartida y abierta a todos los públicos. La literatura como punto de encuentro entre lectores/as y escritores/as. Estas son las señas de identidad de Literaktum, el festival de literatura de San Sebastián.

Un horizonte de letras es el título elegido para la edición de este año, en el que invitados e invitadas explorarán la relación entre la literatura y los conflictos sociales, las guerras y sus consecuencias. La violencia que emana de situaciones injustas y la falta de identidad a causa de migraciones forzadas por los conflictos serán objeto de reflexión.

Gai nagusiaren harira izango dira beste batzuren artean, David Uclés *La península de las casas vacías* Espainiako guerra zibilean kokatutako lanarekin. Bederatzi urterekin El Salvadorretik Estatu Batuetarako bidea bakarrik egin zuen Javier Zamora *Solito* eleberriarekin eta baita Adania Shibli palestinarra ere, *Un detalle menor*, bere jaioterri okupatuan gertatzen den istorioarekin. Antonio Monegal berriz, gerraren iruditeriaz arituko da, *El silencio de la guerra* entsegu oinarri hartuz.

Beste hainbat gairen inguruan idatzitako lanak ere izango dira, Dolores Redondok *Las que no duermen NASH* eta Carmen Molak *El Clan* aurkeztuko dituzte. Eta euskaraz, Unai Elorriaga *Francesco Pasqualeren bosgarren arimaz* arituko da, Karmele Mitxelenak *Zoriona edo antzeko zerbait* izango du hizpide eta Beñat Sarasolak berriz, *Coca Cola bat zurekin*.

Jaialdia hasi aurretik ordea, aurten estreinakoz Literaktum aperitifia izango da eta Martín Caparrós argentinarra izango da protagonista eta bere memoriak biltzen dituen *Antes que nada*, hizketarako aitzakia.

En torno a esta temática participarán en Literaktum David Uclés con su novela *La península de las casas vacías*, centrada en la guerra civil. Javier Zamora y su trabajo *Solito*, crónica del viaje que con nueve años realizó solo desde El Salvador a Estados Unidos y también la palestina Adania Shibli, con *Un detalle menor*, historia que transcurre en su ocupada tierra natal. Antonio Monegal por su parte, desgranará el imaginario de la guerra en la presentación de su ensayo *El silencio de la guerra*.

Más allá del tema central participarán también en el festival entre otros y otras, Dolores Redondo para presentar *Las que no duermen NASH* y Carmen Mola y su último trabajo *El Clan*. En euskera, Unai Elorriaga con *Francesco Pasqualeren bosgarren arima* participará también en Literaktum. Karmele Mitxelena con *Zoriona edo antzeko zerbait* y Beñat Sarasola con *Coca Cola bat zurekin*, su último trabajo.

Este año además, cuatro días antes del inicio del festival tendrá lugar Literaktum aperitifia que protagonizará el escritor argentino Martín Caparrós.

Mendea bada, Luis Martín-Santos *Tiempo de silencio*ren sortzailea jaio zela. Bere bizitza hainbat ikuspegitatik ezagutzeko aukera ematen du San Telmo Museoan dagoen erakusketak. Markos Gimenoaren palindromoetan oinarritutako kartelek, Anne Rearicken Euskal Herriaren argazkiek, Mila Garcíaen paperezko istorioek eta *Irabazi arte* telesailaren inguruko erakusketek osatzen dute eskaintza.


Musika emanaldiek, errezitaldi musikatuak, irakurketa dramatizatuak, Kafkaren lanetan oinarritutako afariak, Kutxa Fundazioa Donostia Literatura Sariak eta beste hainbat jarduerak osatzen dute programazioa, haurrentzako prestatutakoak ahaztu gabe.

Erakunde eta kultur eragile anitzek osatutako sarean elkarlanean landutako proposamena da, literatura hiri osora zabalduko duen jaialdiaren programa.

En el centenario del nacimiento de Luis Martín-Santos autor de *Tiempo de silencio*, una muestra en el Museo San Telmo recorre su vida desde diferentes perspectivas. Los carteles basados en los palíndromos de Markos Gimeno, las fotografías del País Vasco de Anne Rearick, las historias con alma de papel de Mila García y la muestra sobre la serie *Irabazi arte* completan la oferta expositiva de Literaktum.


Conciertos, recitales musicados, lecturas dramatizadas, una cena basada en las obras de Kafka, los Premios Literarios Kutxa Fundazioa Donostia y otras muchas actividades son parte de la programación, sin olvidar la oferta diseñada para los/as más pequeños/as.

Se trata de una propuesta elaborada conjuntamente en colaboración con una amplia red de instituciones y agentes culturales, un programa que extenderá la literatura a toda la ciudad.



Programa orokorra Programa general

07

Literaktum aperitifa**Antes que nada****Martín Caparrós**Elkarrizketatzailea / Entrevista
Ander IzagirreERNEST LLUCH K.E.
19:00 CAS

© Marta Calvo

Bere belaunaldiko idazle handienetakoa, kazetaritzaren eta eleberraren maisua eta baita bien arteko gurutzaketa den kronikarenena ere, Martín Caparrósek (Buenos Aires, 1957) bere memoriak bildu ditu *Antes que nada* liburuan. Baina bere memoriez gain, literatura-tresna bat ere bada azken lana, non hitz bakoitzak kontatzen duen, eta nola kontatzen duen zer kontatzen duen adina garrantzia duen. Bere bizitza kontatzen digu Caparrósek, baina baita Mendebaldearen historiaren hirurogei urte ere.

Uno de los grandes escritores de su generación, maestro del periodismo y de la novela y de ese cruce entre ambos que es la crónica, Martín Caparrós (Buenos Aires, 1957) recopila sus memorias en *Antes que nada*. Pero además de sus memorias, su último trabajo es un artefacto literario donde cada palabra cuenta, donde el cómo importa tanto como el qué y donde nos cuenta su vida y, al mismo tiempo, sesenta años de historia de occidente.

11

LETRAK ZERUERTZEAN
UN HORIZONTE DE LETRAS**Tarántula****Eduardo Halfon**Elkarrizketatzailea / Entrevista
Txani RodríguezOKENDO K.E.
19:00 CAS

© Ferrante Ferranti

Eduardo Halfonek (Guatemala, 1971) beti bizi izan du modu gatazkatsuan bere judutar eta guatemalar nortasun bikoitza. *Tarántula* azken lanean, bere iraganera itzuliko da beste behin, gurasoek haur juduentzako kanpamendu batera bidaliko dituzten bi anaien istorioa kontatzeko.

Autobiografia eta fikzioaren artean eta denbora-jauziak baliatuz, Halfonek identitatearen konplexutasunean, oroimenean eta kideasunean barneratzen den kontakizuna garatzen du. Guatemalako egilearen literaturan behin eta berriz errepikatzen diren gaiak dira hauek.

Eduardo Halfon (Guatemala, 1971) ha vivo siempre de manera conflictiva su doble identidad de judío y guatemalteco. En su último trabajo, *Tarántula*, regresa una vez más a su pasado para narrar la historia de dos hermanos que son enviados por sus padres a un campamento para niños judíos.

Entre lo autobiográfico y lo ficcional y a través de saltos temporales, Halfon desarrolla un relato que se adentra en la complejidad de la identidad, la memoria y el sentido de pertenencia, temas recurrentes en la literatura del autor guatemalteco.

11

LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU
LITERAKTUM PRESENTA

**Francesco Pasqualeren
bosgarren arima**

Unai Elorriaga

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Iñigo Aranbarri

ERNEST LLUCH K.E.
19:00 EU



XIX. mendean, Italia hegoaldeko Sapritik Bizkaira migratu zuen Francesco Pasquale hartu du abiapuntutzat Unai Elorriagak (Algorta, 1973) azken eleberria idazteko. Elorriagaren arbasoa izan zen Francesco Pasquale baina ez zuten elkar ezagutu. Datu erreal gutxi batzuetatik abiatuta fikzioa osatu du idazleak.

Modu independentean irakur daitezkeen hogeit hamar narrazio edo ipuinek osatzen dute *Francesco Pasqualeren bosgarren arima* baina guztiek batera kontakizun bakarra borobiltzen dute.

Para su última novela, Unai Elorriaga (Algorta, 1973) toma como punto de partida a Francesco Pasquale, que en el siglo XIX emigró desde Sapri, en el sur de Italia, a Bizkaia. Francesco Pasquale fue un antepasado del escritor, pero no llegaron a conocerse. Partiendo de unos pocos datos reales, Elorriaga ha creado una historia de ficción.

Veinte cuentos o narraciones que se pueden leer de forma independiente conforman *Francesco Pasqualeren bosgarren arima*. Leídos consecutivamente forman un solo relato.

12

LETRAK ZERUERTZEAN
UN HORIZONTE DE LETRAS

El barracón de las mujeres
Fermina Cañaveras

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Olga Grande

ERNEST LLUCH K.E.
19:00 CAS



El barracón de las mujeres, Fermina Cañaverasen (Torrenueva, Ciudad Real, 1977) lehen eleberriak, hunkigarri bezain ezezaguna den gertakaria dakar argitara: nazien kontzentrazio-esparruetan, Espainiako emakumeak prostituziora behartu izana.

Prosa zaindu eta hunkigarria da idazle honena, eta fikziozko pertsonaiak benetako pertsonaia historikoekin uztartuz, kontakizun gogor eta zirraragarria garatzen du. Memoria historikoaren garrantziaz, eta une gogorrenetan ere, itxaropenaren eta elkartasunaren botere eraldatzaileaz gogoeta eginarazten digu.

Primera novela de Fermina Cañaveras (Torrenueva, Ciudad Real, 1977), *El barracón de las mujeres*, saca a la luz un hecho histórico tan poco conocido como profundamente impactante: la prostitución forzada de mujeres españolas en los campos de concentración nazis.

Con una prosa cuidada y emotiva, entrelazando personajes ficticios con figuras históricas reales, Cañaveras desarrolla un duro e impactante relato y nos hace reflexionar sobre la importancia de la memoria histórica, el poder transformador de la esperanza y la solidaridad incluso en los momentos más duros.

12

LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU
LITERAKTUM PRESENTA

El cielo**Sabina Urraca**

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Ines Azpiazu

LIBRERÍA ZUBIETA - TROA LIBURU - DENDA

Errege – Erregina Katolikoen kalea, 3
Calle de los Reyes Católicos, 3

19:00 CAS

© Choche Hurtado

El Cielo hirugarren eleberria du Sabina Urracak (Donostia, 1984) eta La Humana emakume gaztea du protagonista nagusi, lanik gabe aurrera egiteko antsiolitikoak behar dituen eta beraiek lortzeko, tratu txarrak jasaten dituzten emakume talde batekin terapia egiten duena.

Fabula gisa eraikia, pertsonaiek izenik ez duten istorio gordin honen atzean, matriarkatuaz, emakume hautsiez, gaixotasun mentalez eta errugabetasunaren galeraz hitz egiteko Urracaren asmoa dago.

En su tercera novela, Sabina Urraca (San Sebastián, 1984) nos presenta a La Humana, una joven que sin trabajo se mantiene en pie a base de ansiolíticos y acude a un grupo de mujeres maltratadas para conseguir las recetas.

Construida a modo de fábula tras esta descarnada historia en la que los personajes no tienen nombre, está la intención de Urraca de hablar del matriarcado, de mujeres rotas, de enfermedades mentales y de la pérdida de la inocencia.

Laguntzailea / Colabora
Librería Zubieta – TROA liburu-denda

13

LETRAK ZERUERTZEAN
UN HORIZONTE DE LETRAS

La península de las casas vacías**David Uclés**

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Pilar Rodríguez

KUTXA FUNDAZIOA KLUBA

19:00 CAS

Hamabost urteko lanaren emaitza, David Uclésen (*Úbeda, Jaén, 1990*) azken eleberria familia baten zatiketaren, herri baten deshumanizazioaren, lurralde baten suntsiketaren eta etxe hutsen penintsula baten istorioa da.

Errealismo magikoa oinarri duen narrazio bat, non erreal eta imaginarioa, kostunbrista eta epikoa gurutzatzen diren, aldi berean familia-kronika bat eta gerra baten freskoa erakutsiz.

Fruto de quince años de trabajo, la última novela de David Uclés (*Úbeda, Jaén, 1990*) es la historia de la descomposición de una familia, de la deshumanización de un pueblo, de la desintegración de un territorio y de una península de las casas vacías.

Una narración en clave de realismo mágico donde lo real y lo imaginario, lo costumbrista y lo épico se entrecruzan mostrando a un mismo tiempo una crónica familiar y un fresco de una guerra.

Antolatzaileak / Organizan
Kutxa Fundazioa, Donostia Kultura

13

LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU
LITERAKTUM PRESENTA

Zoriona edo antzeko zerbaiz

Karmele Mitxelena

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Aiora Jaka

ELKAR ARETOA
Fermin Calbetón, 21
19:00 EU



Augustin Zubikarai saria lortu ondoren idatzi du Karmele Mitxelena atera berri den eleberria. Lan honetan alargun geratu den emakume heldu batek egindako barne eta kanpo bidaia kontatzen du idazleak. Sentimenduek pisu handia izango dute eleberrian: poza, haserrea, tristura, lotsa, errua... Hainbat errekonozimendu jaso ditu Mitxelena, horien artean, 2022an, Donostia Hiriko Kutxa Literatura Saria *Haragizko mamuak* ipuin bildumagatik.

Karmele Mitxelena ha escrito esta novela recientemente publicada tras lograr el premio Augustin Zubikarai. La escritora narra el viaje interior y exterior de una mujer adulta que acaba de quedar viuda. Los sentimientos tendrán mucho peso en la novela: alegría, enfado, tristeza, vergüenza, culpa... Mitxelena ha recibido varios reconocimientos, entre ellos, en 2022, el Premio Literario Kutxa Ciudad de San Sebastián por la colección de cuentos *Haragizko mamuak*.

Laguntzaileak / Colaboran
Elkar, Ilazki Euskaltegia

14

LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU
LITERAKTUM PRESENTA

París despertaba tarde

Máximo Huerta

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Mitzel Ezquiaga

TOMASENE K.E.
19:00 CAS



© Patricia Garcinuo

1924ko Parisera itzuli da Máximo Huerta (Utiel, Valentzia, 1971) eta aurreko eleberri batean ezagutu genuen Alice Humbert-en pertsonaia berreskuratu du. Gerratik atera berri den eta iragana ahaztu nahi duen hiri zalapartatsu bat eta bizitzak markatutako orbin handiak dituzten bi emakume.

Prosa deskribatzaile eta erromantikoa baliatuz, maitasunaren, desamodioaren eta identitatearen bilaketaren inguruko gaiak aztertzen ditu Huertak, aldaketa sozial eta artistikoen testuinguru batean.

Máximo Huerta (Utiel, Valencia, 1971) regresa al París de 1924 y recupera a Alice Humbert, personaje que conocimos en una anterior novela. Una ciudad bulliciosa que acaba de salir de la guerra y que quiere olvidar, y dos mujeres supervivientes con grandes cicatrices son las protagonistas de la historia.

Con una prosa descriptiva y romántica, Máximo Huerta explora temas de amor, desamor y la búsqueda de la identidad en un contexto de cambios sociales y artísticos.

14

LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU
LITERAKTUM PRESENTA

Tiempo de silencio

Enrique Vila-Matas

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Javier Mina

SAN TELMO MUSEOA
19:00 CAS

Jarduera hau streaming bidez eskainiko da.
Esta actividad se emitirá vía streaming.



© Antonio Navarro_ Wijkmark

Luis Martín-Santosen *Tiempo de silencio* eleberria hainbat irakurle-belaunaldiren gerraosteko imaginarioaren parte da. Hogei bat hizkuntzatarata itzulita, garaiko narratiba berri zuen, eta hori da munduko eskola eta unibertsitateetan aztertzeko arrazoietakoa bat.

Martín-Santosen jaiotzaren mendeurrenean, Enrique Vila-Matas (Bartzelona, 1948) idazleak *Tiempo de silencio* lanari buruz hitz egingo du eta Seix Barralek argitaratu berri duen edizioa aurkeztuko da. Edizio horrek, Vila-Matasen hitzaurrea du. Javier Mina, idazlea eta Martín-Santosen figura ondo ezagutzen duena, elkarrizketatzailea izango da.

La novela *Tiempo de silencio* de Luis Martín-Santos forma parte del imaginario de la posguerra de varias generaciones de lectores y lectoras. Traducida a una veintena de idiomas, supuso una renovación de la narrativa de la época, que es una de las razones por las que es objeto de estudio en las escuelas y universidades del mundo.

En el centenario de su nacimiento, el escritor Enrique Vila-Matas (Barcelona, 1948) charlará sobre *Tiempo de silencio*, y se presentará la reciente edición publicada por Seix Barral, cuyo prólogo ha escrito Vila-Matas. Javier Mina, también escritor y buen conocedor de la figura de Martín-Santos, será el entrevistador.

15

LETRAK ZERUERTZEAN
UN HORIZONTE DE LETRAS

Soy Milena de Praga

Monika Zgustova

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Ana Merino

OKENDO K.E.
19:00 CAS



Fundación Telefónica-Javier Añás

Milena Jesenská (1896-1944), kazetari, itzultzaile, intelektual, feminista sutsu eta nazismoaren aurkako erresistentzian funtsezkoa, Franz Kafkaren maitasun handienetako bat izateagatik da ezaguna. Orain, Monika Zgustova (Praga, 1957) idazle txekiar-espainiarrak Jesenskáren figura aitortu eta bere legatua eman du jakitera biografia fikzionatu baten bidez, Milenari buruz gorde diren idazki, artikulu eta eskutizetatik eta hura ezagutu zutenen testigantzetatik abiatuta.

Milena Jesenská (1896-1944), periodista, traductora, intelectual, ferviente feminista y figura clave en la resistencia contra el nazismo, es conocida por haber sido uno de los grandes amores de Franz Kafka. Ahora, la escritora checo-española Monika Zgustova (Praga, 1957) hace justicia y desempolva su legado en una biografía ficcionada, a partir de escritos, artículos y cartas que se han conservado de Milena y de los testimonios de quienes la conocieron.

18

LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU LITERAKTUM PRESENTA

Las que no duermen NASH

Dolores Redondo

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Eduardo Yáñez

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA
19:00 CAS

* *Gonbidapenak asteazkena 13ko 11:30etik aurrera jaso ahal izango dira www.donostiakultura.eus-en, Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan eta kultur etxeetan (Loiola salbu). 2 gonbidapen gehienez pertsona bakoitzeko.*

Las invitaciones se podrán obtener a partir del día 13 miércoles a las 11:30, en www.donostiakultura.eus, en las taquillas del Teatro Victoria Eugenia, Teatro Principal y en las casas de cultura (excepto Loiola). Máximo 2 invitaciones por persona.



© Xavier Torres-Bacchetta

Baztango Trilogia, azken urteotako gaztelaniazko literatura-fenomeno garrantzitsuenaren egilea, Dolores Redondo (Donostia, 1969) mundu osoan gehien saldu eta irakurri den gaztelaniazko egileetako bat da. Intriga eta misterioa nahastuz Nafarroako haran aztoragarri eta ilunetara itzuliko da, sekretuak lurpetik ateratzea eta egiak azaltzea gustuko ez den lurraldera.

Nash Elizondo, auzitegi-psikologoa, historiaren protagonista, lurralde mitiko batean sartu eta ustekabeko laguntzak izango ditu, biktima direnean ere makurtzen ez diren emakumeen leinu baten buru jarritz.

Autora de la *Trilogía del Baztán*, el fenómeno literario en castellano más importante de los últimos años, Dolores Redondo (San Sebastián, 1969) es una de las autoras en lengua española más vendidas y leídas en todo el mundo. Combinando intriga y misterio, Redondo regresa a los inquietantes y sombríos valles navarros donde no gusta desenterrar secretos ni revelar verdades.

Nash Elizondo, psicóloga forense, protagonista de la historia, se adentra en un territorio mítico y contará con ayudas inesperadas, colocándose al frente de una estirpe de mujeres que no se doblegan ni siquiera cuando son víctimas.

18

LETRAK ZERUERTZEAN UN HORIZONTE DE LETRAS

Los alemanes

Sergio del Molino

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Leire Palacios

OKENDO K.E.
19:00 CAS



Sergio del Molinoren (Madril, 1979) azken lanak Espainiako historian oso ezaguna ez den gertaera bat kontatzen du: Espainian erretiro goxoan errefuxiatutako naziek nola aktibatu zuten neonazismoa Alemanian.

Noiz iraungitzen dira gurasoen erruak? Seme-alabenganaino iristen al da erru hori liberatzeko betebeharra? Familiako sekretu ilunek oraina suntsitzeko gai den iragan mehatxagarria gordetzen dute.

Los alemanes eleberriak 2024ko Alfaguara Saria jaso du.

El último trabajo de Sergio del Molino (Madrid, 1979) narra un suceso muy poco conocido de la historia española: cómo los nazis refugiados en un retiro dorado en España activaron el neonazismo en Alemania.

¿Cuándo caducan las culpas de los padres? ¿Llega hasta los hijos la obligación de redimirla? Oscuros secretos familiares encierran un pasado amenazador capaz de destruir el presente.

Los alemanes ha recibido el Premio Alfaguara de novela 2024.

18

LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU
LITERAKTUM PRESENTA

Coca Cola bat zurekin

Beñat Sarasola

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Danele Sarriugarte

San Jerónimo Aretoa
19:00 EU



Frank O'Hararen poema bati zor dio izena Beñat Sarasolaren (Donostia, 1984) bigarren nobelak. Izan ere, eleberri honetan O'Harak New Yorken zuzendutako erakusketa baten ingurukoak jasotzen dira. 1960ko uda. Espainiako pintura eta eskultura berriaren lagin on bat biltzea da ideia, eta hautagaien artean daude nazioartean sona hartzen ari diren Oteiza eta Chillida izeneko bi artista ere. Artea erregimen frankista zuritzeko baliatu ez dadin adi daude, aldiz, beste zenbait. Eta, bitartean, O'Harak, lanak lan, Vincent Warren dantzari eta maitalearengan du jarrita bere gogo biziena.

La segunda novela de Beñat Sarasola (San Sebastián, 1984) toma el título de un poema de Frank O'Hara. De hecho, esta novela nos lleva a una exposición de O'Hara en Nueva York. Verano de 1960. La idea es recoger una buena muestra de la nueva pintura y escultura de España, y entre los candidatos se encuentran dos artistas reconocidos internacionalmente como Oteiza y Chillida. Otros están atentos a que el arte no sirva para blanquear el régimen franquista. Mientras tanto, O'Hara, trabajando en la obra, centra su entusiasmo en el bailarín y amante Vincent Warren.

19

LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU
LITERAKTUM PRESENTA

Demonios

Fatma Aydemir

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Luisa Etxenike

ERNEST LLUCH K.E.
19:00 DE + EU + CAS

Itzulpena euskara eta gaztelaniara
Traducción a euskera y castellano



© Sibylle Fendt

Hüseyin Yılmaz bihotzekoak jota hil da erretiroa hartzeraz Istanbulera itzultzeko ametsa betetzen duen egunean. Familia Turkiara doa gorpua lurperatzera, kide bakoitzak bere deabruak, egia ezkutuak eta iraganeko zauriak dituela, familiaren zimenduak kolokan jarri.

Eleberri saritu honetan Aydemirrek (Karlsruhe, Alemania, 1986) zalantzan jartzen du lehen eta bigarren belaunaldiko etorkinen familia horren funtsa, eta ulertuta sentitu baino nahi ez duten guraso, seme-alaba eta neba-arreba batzuen arteko amildegiak erakutsiko dizkigu.

Hüseyin Yılmaz muere de un infarto el día que cumple su sueño de regresar a Estambul para jubilarse. Su familia viaja a Turquía para enterrarle, cada uno de ellos con sus propios demonios, verdades ocultas y heridas del pasado que irrumpirán y harán tambalear los cimientos de la familia.

En esta premiada novela, Aydemir (Karlsruhe, Alemania, 1986) cuestiona la esencia de esta familia de inmigrantes de primera y segunda generación, y muestra los abismos entre unos padres, unos hijos y unos hermanos que solo anhelan sentirse comprendidos.

Antolatzaileak / Organizan
Goethe-Institut, Donostia Kultura

20

LETRAK ZERUERTZEAN UN HORIZONTE DE LETRAS

**Componer un mundo en común.
¿Por qué necesitamos a Bruno
Latour?**

Juan Manuel Zaragoza

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Antonio Casado

KAXILDA LIBURU-DENDA

Arroka kalea, 2

19:00 CAS

**Jarduera hau Pentsatu! Jaialdia programaren parte da. UPV/EHUK, Joxe Azurmendi Katedrak (UPV/EHU) eta Agora Elkarteak antolatua / Esta actividad forma parte de Pentsatu! Jaialdia, organizado la UPV/EHU, por Joxe Azurmendi Katedra (UPV/EHU) y Agora Elkarte.*



Zergatik behar dugu Bruno Latour? Gatazka ekologikoek etorkizunaren existentzia bera zalantzan jartzen dutela dirudien une honetan, etorkizun itxaropentsua irudikatu behar dugu, eta mundu komun bat osatu, non gizakien eta giza ez direnen arteko harremanak beste era batekoak izango diren. Bruno Latourrek bere bizitzaren zati handi bat giza ez diren kolektiboekiko harreman horiek nolakoak ziren aztertzen eman zuen, eta nola kolektibo horiek, sinetsi nahi ez bagenuen ere, pisu handia duten gure bizitzan.

¿Por qué necesitamos a Bruno Latour? En un momento en que las controversias ecológicas parecen poner en cuestión la existencia misma del futuro necesitamos imaginar un horizonte esperanzador y componer un mundo en común en el que las relaciones entre humanos y no humanos sean de otra manera. Bruno Latour dedicó gran parte de su vida a estudiar cómo eran esas relaciones con los colectivos de no humanos y cómo estos, pese a lo que nos empeñábamos en creer, tenían un gran peso en nuestra vida.

Antolatzaileak / Organizan
**Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia
Kultura**

Laguntzailea / Colabora
Kaxilda liburu-denda

20

LETRAK ZERUERTZEAN UN HORIZONTE DE LETRAS

Solito

Javier Zamora

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Iban Zaldua

OKENDO K.E.

19:00 CAS



© Gerardo del Valle

Bederatzi urte besterik ez zituela, Javier Zamorak (El Salvador, 1990) bost mila kilometroko bidaia egin zuen El Salvadorretik Estatu Batuetara, gurasoekin elkartzeko, ezaguna zuen gutzia atzean utzita. Bizitza betiko aldatu zion odisea izan zen hura.

Haur baten ikuspegi inozotik eta lehen pertsona kontatua, *Solito* esperientzia horren narrazioa da, bidaia luze eta larrigarri baten testigantza ahaztezina, baina baita maitasunez, ontasunez eta esker onez betetako istorio bat ere. Egun, migrazioa bihurtu den tragedia ulertzeko funtsezko obra.

Con tan solo nueve años, Javier Zamora (El Salvador, 1990) emprendió un viaje de cinco mil kilómetros de El Salvador a Estados Unidos para reencontrarse con sus padres, dejando atrás todo lo que le era familiar. Toda una odisea que le cambió la vida para siempre.

Narrada en primera persona desde la perspectiva ingenua del niño que era, *Solito* es el relato de esa experiencia, el testimonio inolvidable de un largo y angustioso periplo, pero también una historia llena de amor, bondad y agradecimiento. Una obra fundamental para entender la tragedia en la que se ha convertido la migración en nuestros tiempos.

21

LETRAK ZERUERTZEAN UN HORIZONTE DE LETRAS

El silencio de la guerra

Antonio Monegal

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Santi Eraso

SAN TELMO MUSEOA
19:00 CAS



Zer da gerra bat gure haragitan bizi izan ez dugunontzat? Nondik ateratzen dira fenomeno horri buruzko gure ezagutza antolatzen duten irudiak eta kontakizunak? Gerrari buruzko diskurtsoa literaturaren, zinemaren, historia-liburuen eta hezkuntza-sistemaren, bideo jokoen edo iraganeko gerren omenezko monumentuen bidez sartzen da gure bizitzan. Bere irudikapena kulturaren zati bat da, eta gerraren ikuspegi epiko eta glorifikatzailea izenpetzen laguntzen du, edo, aitzitik, gerra arbuizatzen eta haren aurka egiten.

¿Qué es una guerra para los que no hemos vivido ninguna en carne propia? ¿De dónde salen las imágenes y los relatos que organizan nuestro conocimiento de ese fenómeno? El discurso sobre la guerra penetra en nuestra vida a través de la literatura, el cine, los libros de historia y el sistema educativo, los videojuegos o los monumentos en memoria de las guerras pasadas. Su representación forma parte de la cultura y contribuye a suscribir una visión épica, glorificadora de la guerra o, por el contrario, a rechazarla y oponerse a ella.

22

LETRAK ZERUERTZEAN UN HORIZONTE DE LETRAS

Un detalle menor

Adania Shibli

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Yolanda Mendiola

OKENDO K.E.
19:00 EN + EU + CAS

** Gonbidapenak jardueraren bezperako 16:00etatik aurrera eskuratu ahal izango dira www.donostiakultura.eus-en, kultur etxeetan (Loiola salbu) eta Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan. 2 gonbidapen gehienez pertsona bakoitzeko.*

Las invitaciones se podrán obtener a partir de las 16:00 horas de la víspera de la actividad en www.donostiakultura.eus, en las casas de cultura (excepto Loiola) y las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal. Máximo 2 invitaciones por persona.

Eleberria, saiakera eta kontakizuna landu dituen Adania Shibli (Palestina, 1974) literatura arabiarreko izen garrantzitsuenetako bat bihurtu da. Memoria, hizkuntzaren boterea eta Palestinaren okupazio israeldarraren indarkeria dira bere lanetan jorratzen dituen gaiak.



Azaroa / Noviembre

Un detalle menor eleberrian, Shiblik gertaera tragiko eta erreal bati heltzen dio: 1949an, Negeveko basamortuan, soldadu israeldarrek neska beduino bat bahitu, bortxatu eta erail zutenekoa. Prosa minimalista delikatu eta behatzailea baliatuz, giro erabat itogarria sortzen du eleberria osatzen duten bi zatietan.

Detalle xume bat izenburupean, Adania Shibliren azken lana euskaraz argitaratu berri du Igela argitaletxeak, Aitor Blanco Leozen itzulpenarekin.

Adania Shibli (Palestina, 1974) ha cultivado la novela, el ensayo y los relatos convirtiéndose en uno de los nombres más importantes de la literatura árabe. La memoria, el poder del lenguaje y la violencia de la ocupación israelí de Palestina son temas que explora en sus obras.

En *Un detalle menor*, Shibli aborda un suceso trágico y real: el secuestro, violación y asesinato de una joven beduina en 1949 por parte de soldados israelíes en el desierto de Néguev. Con una prosa minimalista delicada y observadora, la autora crea una atmósfera completamente asfixiante en las dos partes en las que divide la novela.

Con el título *Detalle xume bat*, y traducción de Aitor Blanco Leoz, la novela acaba de ser publicada en euskera por la editorial Igela.

23

LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU
LITERAKTUM PRESENTA

El clan**Carmen Mola**

Elkarrizketatzailea / Entrevista
Nerea Kortabitarte

LUGARITZ K.E.
19:00 CAS

* Gonbidapenak jardueraren bezperako
16:00etatik aurrera eskuratu ahal izango dira
www.donostiakultura.eus-en, kultur etxeetan
(Loiola salbu) eta Victoria Eugenia Antzokiko
eta Antzoki Zaharreko leihatiletan. 2 gonbidapen
gehienez pertsona bakoitzeko.

Las invitaciones se podrán obtener a partir de
las 16:00 horas de la víspera de la actividad en
www.donostiakultura.eus, en las casas de cultura
(excepto Loiola) y las taquillas del Teatro Victoria
Eugenia y Teatro Principal. Máximo 2 invitaciones
por persona.



© Arduino Vannucchi

La novia gitana, La red púrpura, La nena
eta *Las madres* eleberrien ostean, *El clan*,
Carmen Molak idatzi eta Elena Blanco
inspektorea protagonista duen azken
nobela da.

Enpresako, politikako, epailtzako eta
poliziako pertsona handiek osatutako
erakunde boteretsu bati egin beharko
dio aurre Brigada de Análisis de Casos
delakoaren inspektoreak. Basatia eta
izugarri adiktiboa, *El Clan* sagaren amaiera
da.

Tras *La novia gitana, La red púrpura, La*
nena y *Las madres, El clan* es la última
novela escrita por Carmen Mola, que
protagonizará la inspectora Elena Blanco.

En su última aventura, la inspectora de la
Brigada de Análisis de Casos, se enfrenta a
una poderosa organización integrada por
grandes figuras de la empresa, la política, la
judicatura y la policía. Brutal y enormemente
adictiva, *El Clan* sirve de colofón de la saga.





Jarduera bereziak Actividades especiales

KONTZERTUA CONCIERTO



15

Mursego

ERNEST LLUCH K.E.

19:00 EU

Markos Gimeno sortutako palindromoen berrirakur(ari)keta librea. Musika, performancea, umorea eta "hizperimentu"ek bat egiten dute Maite Arroitauregi, Mursegoren hegaldi berri honetan.

Mursego ha compuesto expresamente piezas inspirándose en los carteles y palíndromos que se exponen en la muestra *Markos Gimenoaren karteletrak*. Música, performance y humor para un concierto en el que el violonchelo y la voz de Mursego se unen a la esencia de la exposición.

SARI BANAKETA ENTREGA DE PREMIOS



Gonbidapenak asteazkena 13ko 11:30etik aurrera jaso ahal izango dira www.donostiakultura.eus-en, Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan eta kultur etxeetan (Loiola salbu). 4 gonbidapen gehienez pertsona bakoitzeko.

Las invitaciones se podrán obtener a partir del día 13 miércoles a las 11:30, en www.donostiakultura.eus, en las taquillas del Teatro Victoria Eugenia, Teatro Principal y en las casas de cultura (excepto Loiola). Máximo 4 invitaciones por persona.

16

Kutxa Fundazioa Donostia Literatura Sariak

ANTZOKI ZAHARRA / TEATRO PRINCIPAL

19:30 EU + CAS

Aurtengo Kutxa Fundazioa Donostia Literatura Sarien banaketa ekitaldian kontakizun-liburua eta antzerkia modalitateak sarituko dira, euskaraz zein gaztelaniaz. Gainera, euskal literaturgintzan aritutako pertsona batek Ibilbide Saria jasoko du, bere bizitzan euskal liburugintzari egindako ekarpenarengatik aitortza jasoz. Sari banaketaren ondoren *A Fuego* antzezlana eskainiko da gaztelaniaz, La Bella Otero antzerki konpainiaren eskutik.

